

NOLA LIBRATU ERROMAKO LEGIOTIK



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Italiar penintsula, K.a. 343. Lehen Gerra Samnita piztu zen erromatarren eta Apeninoetako samniten artean. Erromatar armadak hasieratik *legio* zuen izena, baina, ordurar arte, greziar *polis*-en falangeen moduan jarduten zuten gudu-zelaian. Samniten aurkako gerra piztu zenean hasi ziren taktikak aldatzen eta modu formalagoan antolatzen. Hasierako bakarria bitan banatu zen lehenik, lautan aurrerago, eta pixkanaka, geroz eta gehiago profesionalizatu zen.

Lanbide gogorra zen legionarioena. Baina baldintzak ez ziren hain kaskarrak. Janaria, bizitokia, soldata finkoa, erretiroa eta arreta medikoa bermatuta zeuzkaten, eta pribilegioak izan ohi zituzten, esaterako, epaiketetan. Gerrako harrapakinen zati bat ere eramaten zuten. Legioan sartzeko eskakizunak betetzea erraza zen: erromatar hiritarra izatea –atzerritarrek tropa osagarrietan parte hartzeko aukera zuten–, 1,65 metro edo gehiagoko garaiera edukitzea, gutxienez 17 urte izatea eta osasun azterketa gainditzea. Horregatik, asko ziren beste ogibiderik ezean legioa hautatzen zutenak.

Baina Erromako ejertzitoan parte hartzea ez zen beti hautazkoa. Gerra garaian 17 eta 60 urte bitarteko herritarrek errekrutatzen zituzten, eta gerra ez zen ezohikoa Erroman. Eskakizunak ez



Erromatar legionarioak barbaroen kontra borrokan. Erlike honek Grande Ludovisi izeneko sarkofagoaren erdiko panela osatzen du eta III. mendekoa da.

betetzea zaila zen. Soldadutza egin eta gerrara joatea baino zeregin hobekak zizutenek osasun-azterketa ez gainditzea zuten gehienetan legiotik libratzeko aukera bakarria, ondorengo garai gehienetan bezala. Eta hori lortzeko bideetako bat erpuruak mozte zen, muturreko metodoa baina eraginkorra, erpururik gabe ezpatari heltzerik ez baitzegoen. Augustoren garaian (K.a. 16-K.o. 14) kasu sonatu bat izan zen: erromatar aberats batek –eliteak ez zeuden salbuetsita– bi semeei erpuruak moztu zizkien haurrak zirela, haztean gerran galduko

zitzen beldur. Amarrua harrapatu eta gizona esklabo saldu zuten.

Datu zehatzagorik ezean, ez dakigu horrelako kasuak bakanak ziren ala ohikoa zen garai hartako “intsumisoek” hatzak mozteak. Baina Inperioaren amaieran, barbaroak hiriaren atarian zituztela, soldaduek sekula baino gehiago zuten galtzeko eta ezer gutxi irabazteko. Erpuruak ebakitzea oso ohiko bihurtu zen nonbait, 368. urtean legeria aldatu eta heriotza zigorra ezarri baitzuten, odol isuria gudu-zelaira bideratzeko asmoz. ■



MANGATAN

Hatsepsut faraoiaren komiki zuritua

Badirudi manga historikoa loraldi betean dagoela. Lerro hauetan Pliniori buruzko komikia atera zutela jaso genuen eta, besteak beste, Karl Marx ere mangako pertsonaia bihurtu dute. Berriki, Chie Inudoh margolari japoniarra Hatsepsut faraoiari buruzko manga argitaratzen hasi da. Hatsepsut lehenengo emakumezko faraoia izan zen XVIII. dinastian,

K.a. 1490etik 1468ra. 22 urteko agintaldian gerrak saihestea lortu zuen eta Egiptorentzat garai oparoa izan zen hura. Inudohk dio zehaztasun historikoa izan duela xede lan honetan, baina ahaleginean azalaren kolorea ahaztu du nonbait. Kleopatra ez bezala –hura greziar jatorrikoa baitzen– Hatsepsut afrikarra zen, azal ilunekoa. ■